

**MAIATZAREN 30etik  
EKAINAREN 5era**  
Del 30 de mayo al 5 de junio



**Getxo**

*bizi ezazu*

Ingurumena  
Medio Ambiente

# GETXO ASTE BERDEA SEMANA VERDE 2022

[www.getxo.eus/asteberdea](http://www.getxo.eus/asteberdea)



## HAUR BAT, ZUHAITZ BAT

Getxoko Udaleko Ingurumen arloak eta lorezaintza zerbitzuak bultzatutako "Haur bat, zuhaitz bat" ekimenaren helburua udalerrian jaiotako edo adoptatutako ume bakoitzeko zuhaitz bana landatzeko konpromisoa hartzea da, jaioberriak "landare-bikia" izan dezan. Ekimena gurasoak eskatuta gauzatuko da. Eskaera jaso ondoren, zuhaitza landatu eta etiketatuko dugu, eta ziurtagiri bat emango diogu familiari. Ziurtagiri horretan, besteak beste, zuhaitzaren kokapen zehatza, espeziea eta landatze-data adieraziko dira.

## ZURE LANDAREAK ADOPTATZEN DITUGU

Ez dakizu zer egin etxeko loreontzietan duzun landareekin? Guztioi gertatu zaigu askotan, baina orain irtenbide bat dugu. **Getxoko Udaleko Ingurumen arloak eta lorezaintza zerbitzuak** bultzatutako "Landareek zaintzen gaituzte; gure txanda da orain" ekimenari esker, etxean sartzen ez zaizkizun edo zaintzen jarraitu ezin dituzun landare edo zuhaixka horiek guri emateko aukera eskaintzen dizugu. Landare edo zuhaixkak Getxoko berdegune batean birlandatuko ditu Udalak.



**ESKAERAK KUDEATZEKO  
INFORMAZIOA**  
[ingurumena@getxo.eus](mailto:ingurumena@getxo.eus)  
[www.getxo.net/asteberdea](http://www.getxo.net/asteberdea)

## ATXIKI ZAITEZ ORGANIKORA

Aldaketaren parte izan nahi baduzu, zatoz informazio-puntuetara zure kit-a jasotzera. Asteartetik ostiralera: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00. Larunbatetan: 10:00 - 14:00 eta 16:00 - 19:00

Andres Larrazabal (Kale Nagusiarekin) ..... Maiatzak 10, 12, 14, 25 eta 27  
Santa Eugenia plaza..... Maiatzak 18, 20 eta 31 - Ekainak 2 eta 4  
Algortako Geltokia plaza ..... Maiatzak 11, 13, 24, 26 eta 28  
Ollarretxe (Salsidurekin) ..... Maiatzak 17, 19 eta 21 - Ekainak 1 eta 3  
Gernika parkea ..... Ekainak 7, 9, 11, 22 eta 24  
San Inazio plaza ..... Ekainak 15, 17, 28 eta 30 - Uztailak 2  
Malakate parkea..... Ekainak 8, 10, 21, 23 eta 25  
Borobia parkea ..... Ekainak 14, 16, 18 eta 19 - Uztailak 1

## IZEN-EMATEAK uztailaren 1era arte



## GETXOKO BALKOIAK ETA LEIHOAK APAINTZEKO VI. LEHIAKETA

Parte hartzeko, bidali mezu elektronikoa bat [getxoasteberdea@gmail.com](mailto:getxoasteberdea@gmail.com) helbidera, zure izena, telefono zenbakia eta etxebizitzaren helbidea adieraziz, eta lehiaketan parte hartuko duten balkoi edo leihoetako argazkiak erantsiz. Izena emateko egiaztagiria aurkeztuta, apaindutako balkoia edo leihoak ikusarazteko erabiliko duzun bereizgarria jasoko duzu. Horrela, epaimahaiaren bozketa-prozesua erraztuko dugu.

**LEHEN SARIA 300€  
BIGARRREN SARIA 150€**

Sariak lorezaintzako produktuekin trukatu ahal izango dira Getxoko saltokietan.



Informazioa: [getxoasteberdea@gmail.com](mailto:getxoasteberdea@gmail.com)

Oinarriak: [www.getxo.net/asteberdea](http://www.getxo.net/asteberdea)



# ASTE BERDEKO JARDUERAK

## ▶ ASTELEHENA 30 KOSMETIKA NATURALEKO

**TAILERRA** 18:00etatik 19:30era - San Nikolas plaza  
Erraz lor daitezkeen osagai naturalekin **aurpegiko krema hidratatzailea** egiten ikasiko dugu. Tailerra amaitu ondoren, krema etxera eramateko aukera izango duzu.



## ▶ ASTEARTEA 31 PLANETAREN ALDEKO TRUKEA

12:00etatik 13:00etara - Areetako Geltokia plaza  
**PET plastiko birziklatuzko poltsak** doan banatuko ditugu plastikoaren truke. Botilak, plastikozko poltsak, esne- edo zuku-brikak eta abar karporen ondoan jarritako edukiontzi horian utzi besterik ez duzu egin behar.



## ▶ UPCYCLING PINTURAREKIN: EMAN BIZITZA BERRI BAT ARROPARI

18:00etatik 19:00etara - Algortako Geltokia plaza  
**Oihal gainean margotzeko hainbat teknika** aztertuko ditugu. Ekarri berri nahi duzun arropa, eta margo ezazu estilo eta balio berriekin.



## ▶ ASTEAZKENA 01 PLANETAREN ALDEKO TRUKEA

12:00etatik 13:00etara - Algortako Geltokia plaza  
**PET plastiko birziklatuzko poltsak** doan banatuko ditugu berriz ere plastikoaren truke.

## ▶ "SUKALDEAN HONDAKINIK EZ" TAILERRA

18:00etatik 20:00etara - Areetako Geltokia plaza  
Familientzako tailer praktiko honetan **sukaldean sortutako hondakinak murrizten** ikasiko dugu, baita normalean botatzen ditugun barazkien zatiak erabiltzen ere. Gainera, errezeta bat prestatu eta dastatuko dugu.



## ▶ OSTEGUNA 02 "BOTIKIN NATURALA" TAILERRA

18:00etatik 19:30era - Algortako Geltokia plaza  
Sendabelarrak eta olio esentzialak erabiliko ditugu **erabilera anitzeko ukendu** bat egiteko. Ukendua oso lagungarria da espektoraizaille gisa edo ziztadei eta sudurreko kongestioari aurre egiteko.



## ▶ OSTIRALA 03 ITSASONTZIAN IRTEERA

17:00etatik 18:00etara - 18:00etatik 19:00etara  
**Ontziratzea kirol-portuan**

Igo **"Bote Tours"** ontzian eta ezagutu Abrako badiaren ingurumen-historia Imanol López Díaz geologoaren eskutik (Ekobideak). Bi irteera. Familientzako jarduerak.



BI IRTEERA

## ▶ KALEKO IKUSKIZUN MUSIKALA

19:00etatik 20:00etara - San Nikolas plaza  
Kaleko ikuskizun honetan estilo guztietako musikaz gozatzeko aukera izango dugu. Erabilitako tresna guztiak hondakin-materialak **birziklatuz** edo **berrerabiliz** fabrikatu dira.

## ▶ IBILBIDEA BIZIKLETAZ - 20:00etatik 21:30era - Bizkaia Zubia

Eman izena bizikleta bidezko **tour erraz eta irisgarri** honetan parte hartzeko. Gure itsasertaz modu osasungarri eta jasangarrian gozatuko dugu.

## ▶ LARUNBATA 04 HEGAZTIEN ERAZTUNKETA

9:00etatik 12:00etara - Bolueko hezeguneko ponpa-etxea

**Eraztunketa** nola egiten den ikusiko dugu, harrapatutako hegaztiak gertutik behatuko ditugu, eta haien biologiari, ezaugarriari eta Bolueko hezegunean duten presentziari buruz mintzatuko gara. **Jarduera bertan behera utziko da eguraldi txarra egiten badu.**



## ▶ MINDFUL EATING: ELIKADURA KONTZIENTEA

9:30etik 11:30era - Aixerrrotako errota

**Arreta osoko, gorputz-pertzepzioko** eta **erlaxazioko** teknikak jarriko ditugu praktikan, ondoren gure **gorputzak janari motaren arabera nola jokutzen duen** jakiteko. Horretarako, zapora gaziak, garratzak, azidoak eta gozoak tartekatuko ditugu, baita plater hotzak eta beroak ere, eta egoera txarretan gorputzak jateko duen premia kontrolatzeko teknikak landuko ditugu. Gomendioak: jantzi arropa eroso; ekarri ura, estera eta toalla bat; etorri baraurik.

## ▶ LARUNBATA 04 MENDI-IBILBIDEA

10:00etatik 13:00etara - Algortako Geltokia plaza  
Mendi-ibilbide zirkularra Getxon zehar, **Itxartu Mendi Klubaren** eskutik. Algortatik atera eta Martiartu eta Boluetik igaroko gara, Algortara berriz itzuli aurretik.



## ▶ HONDAKINEN BILKETA KAYAKEAN

10:30etik 12:30era - Kirol-portua  
Zaborrak eta mikroplastikoei gure hondartzetan eta itsasoan dituzten ondorioak **kayak** batetik antzemateko aukera izango dugu. **Garapen Jasangarrirako 12. eta 14. helburuak** landuko ditugu (ekoizpen eta kontsumo arduratsuak eta urpeko ura, hurrenez hurren).

## ▶ HODEI MAGOA. Uraren sekretuak

18:00etatik 19:00etara - Romo Kultur Etxea  
80 ikastetxe baino gehiagotan antzestu ondoren, Hodei magoarekin primeran pasako dugu Getxoko Aste Berdean. **Magia-ikuskitan** hezitzailea da, publikoaren parte-hartzearen bidez uraren zikloa, garrantzia eta erabilerak ulertzeko aukera emango diguna. Familientzako jarduerak.



## ▶ GAUEKO MARTXA

22:00etatik 00:00etara - Fadurako aparkalekua  
Argi frontal bat emango dizugu **mendi-ibilaldi erraz bat** (maila guztietarako aproposa) egiteko udalerriko bide eta zidorretan barrena, izarrez eta naturaren gaueko soinuz gozaten dugun bitartean.



## ▶ IGANDEA 05 IBILKETA NORDIKOA KOSTALDETIK

10:00etatik 12:30era - Aixerrrotako errota  
**Tailerra eta ibilketa nordikoa** Getxoko kostaldean zehar, hain leku ederrean ibiliz gozaten dugun bitartean praktika honen funtsezko alderdietan trebatzeko.



## ▶ GETXO ALDEKO PLANTAK

11:00etatik 12:30era - Algortako Geltokia plaza  
Irteera honetan, **inguruko landareak eta haien erabilerak** (kulturalak, sendagarriak, gastronomikoak edo kosmetikoak) aztertuko ditugu. **Jarduera** amaitzeko, ibilbidean identifikatutako espezie batzuk **dastatuko** ditugu. Ez ahaztu libreta eta boligrafoa ekartzea herbarioa egiteko.

## ▶ Geoibilbidea. Azkorriko iraganaren aztarna

11:00etatik 13:00etara - Azkorriko hondartzako aparkalekua  
Itsaslabarrez eta harea beltzez inguratutako **Azkorri hondartzaren** ezaugarri nabarmenenak ezagutzeko **ibilbide geologikoa**.

## ▶ ARGAZKI-GINKANA

12:00etatik 14:00etara - Areetako Geltokia plaza  
Familia edo lagunartean primeran pasatzeko ginkana, Getxoko historia, jauregiak, geografia eta abar arakatzeko ditugun bitartean. Antzinako argazki-kamerak erabiliko ditugu udalerriko toki nabarmenen irudiak ateratzeko. **Aurkituko dituzue pistak? Eta saria?**

## ▶ BIRZIKLATZE-JOKOAK

12:00etatik 14:30era - Algortako Geltokia plaza  
Etorri etxeko txikiekin **jolas egitera**, ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa sustatzea helburu duten **jolasen** bidez. Jolas-bideak lau geldialdi izango ditu eta bakoitzean **haurrek ondo pasatzeko eta ikasteko** aukera izango dute.



## ▶ PERTSONAIA BIRZIKLATUEN ERAKUSKETA ASTE OSOAN ZEHAR.

Romo Kultur Etxean, Fadura eta Gobela kiroldegietan eta Udaletxean egongo da ikusgai. Leku bakoitzean Iñaki Aguinaga Pascual artistak euskal kostaldeko hondartzetan aurkitutako materialekin egindako eskultura bana jarriko da.



## EZINBESTEKOA DA IKUR HAU DUTEN JARDUERETAN IZENA EMATEA:

Telefonoz: **605 74 90 64** (lanorduetan).

E-postaz: **getxoasteberdea@gmail.com**  
helbidera idatzi, hautatutako jarduerak, izen-abizenak eta telefono mugikor zenbakia adieraziz. **Jarduerak guztiak doakoak dira.** Eurria egiten badu, jarduerak lekualdutako dira.

Kokapen berriaren berri [www.getxo.eus/asteberdea](http://www.getxo.eus/asteberdea) webgunean emango da.